

MARRAZKIA

Gidoia

94 hitz

Begira ezazu arretaz ondoko marrazkia eta bertan marraztu behar duzu esaten duguna.

- 1.- Mitxi katua aurrean eserita dago. Marraztu bere begi handiak eta marroiak.
- 2.- Autoa Mitxiren aitarena da. Gurpilak falta zaizkio eta zuk jarri behar dizkiozu: beltzak dira.
- 3.- Mitxiren laguna atzean dago: oso pozik doa. Marraztu bere belarri handiak.
- 4.- Eguzkia goian dago, erdian. Borobila eta horia margotu behar duzu.
- 5.- Seinalearen azpian dagoen belarraren ondoan 3 lore gorri jarri behar dituzu.
- 6.- Bukatu hodeiak: urdinak dira eta oso handiak.
- 7.- Seinalearen gainean 2 txori ipini behar dituzu. Afrikatik etorri dira eta udan gure herrian geldituko dira.
- 8.- Marraztu bost harri behean, errepidearen ezker aldean.

Irakurketa Eraginkorra liburutik hartuta

IRAKASLEENDAKO OHARRAK

- Ume guztiek izan behar dituzte eskura entzun gaian eskatzen diren baino bi **kolore** gehiago (**marroia, beltza, horia, gorria, urdina** dira eskatzen direnak eta horretaz gain **berdea** eta **laranja** ere izan behar dituzte)
- **Bi ariketa mota** daude: marrazkia eta datuak jaso.
- Testua **hiru aldiz entzungo dute**:
 - lehenengoan marrazkiari buruzko informazioa jaso dute;
 - bigarrenean galderak erantzuteko behar dutena;
 - hirugarrenak errepasoa egiteko balio izango du.